



2018-2019 MATRIKULAZIOA

INFORMAZIO OROKORRA

Eskeintzen diren instrumentuak:

Onarturikoak: Hezkuntza musikala, akordeoia, txistua, tronboia, tronpeta, bonbardinoia, saxofoia, gitarra, kantua, bibolina, zeharkako txirula, pianoa eta Bateria.

Irakasten diren besteak: gitarra elektrikoa, tronboia eta bonbardinoia

Musika taldeak:

Txistulari taldea, Banda, Fanfarre eta Eskolania. Beste talde batzuk sortzeko aukera.

Eskolako antolamendu pedagogikoa:

Klaustroa: Irakasle guztiak biltzen ditu. Beraiengandik Zuzendaria, Idazkaria eta Ikasketa Arduraduna hautatzen dira.

Jestio Pedagogikoko batzarra: Udaletxeko ordezkariak (3 ordezkari), ikasleen gurasoak (2 ordezkari), ikasleak (ordezkari 1) eta Musika Eskolako zuzendaria biltzen ditu. Batzorde pedagogikoaren zeregin nagusia eskolako Plangintza pedagogikoa onartu eta honen betetzea egiaztatzea da.

MATRIKULATZEKO ARAU NAGUSIAK

Hasteko adina: Udal Musika Eskolan hasteko adina sei urtetik gorakoa da. 5 urtetik gorako haurrak onartzeko aukera egongo da, beti ere, gutxienez 6 pertsona osaturiko taldea osatzen bada.

Adin hontatik gorakoak edo eta musika ezaguera baduela adierazten duenak, sarrera frogatuta egin beharko du dagokion maila jakiteko edo balorazio bat eginen da.

Matrikula baliogabetu nahi izanez gero, 1.hiruhilabetetan egin ahal izango da (epea: abenduaren 31a arte). Epe horretatik aurrera matrikula baliogabetu nahi duenak, kuota guztiak ordaindu beharko ditu, kurtso bukaera arte.

ARAUTEGI AKADEMIKOA

Musika Eskolako arautegi akademikoa agertzen den dokumentu bat nahi izanez gero Etxarri Aranazko udaleko web orrian dago. Jarraian onarritako laburpen bat duzue:

Musika Hizkuntza: Hasiera (iniciación) ikasturte bat dago eta beste sei maila bi ziklotan banaturik : 1.zikloa: 1., 2., 3. eta 2º zikloa: 4., 5. eta 6 Mailak.

Instrumentua: Instrumentua hizkuntzako lehen mailarekin hasiko da. Hasiera eta hiru ziklo izanen ditu: lehenegoa eta bigarrena (nahitanahiezkoa) hizkuntza bezelakoak dira; hirugarren zikloa (adineko eta iraupeneko mugarik gabe)

Diploma: Ziklo bakoitzaren amaieran diploma bat emanen zaio ikasle orori, eta bigarren zikloaren amaieran Ikasketa Ziurtagiri bat

Instrumentuan hasiera ikasturte bat dago. Ikaslearen maila ona bada, irakasleak, hala uste badu, hurrengo mailara igoko du.

Behin musika ikasketak hasita, ikasle batek hizkuntza musikarekin jarraitu nahi badu baina ez instrumentuarekin, urte batez utzi dezake. Hurrengo ikasturtean nahitanahiez bere instrumentuarekin jarraitu edo beste berri bat hautatu beharko du.

Eskolania: Hizkuntzako 4. mailako ikasleek nahitanahiez eskolania parte hartuko dute, asteroko 90 minutuko ensaioarekin. Eskolaniako bi urteak bete ezker nahi duenak eskolania jarraitzeko aukera izango du.

Ganbara: Irakasle arabera, ikasle guztiak talde txikietan ganbarako musikako tarteak izango dute: Bikoteak, Hirukoteak... Kantuko ikasleek kamara beharrean erreperetioa izanen dute eta Metalezkoek, Banda.

ESKOLA KANPOKO JARDUERAK

Gabon, Sta Cecilia eta Ikasturte bukaerako kontzertuak. Instrumentu guztietako ikasleek parte hartzen dute

Instrumentuen audizioak: Udaberrian izaten dira

Ekintza kulturaletan parte hartzea: Euskal astea (haurren eguna), Santa Ageda...

MATRIKULAZIO EGUTEGIA

Ekainaren 1etik 26ra, hau barne. Udaletxean, (948460004 telefonoa) goizeko hamarretatik eguerdiko ordubiak arte.

Abuztuaren 16tik irailaren 7ra matrikula egiteko epe osagarria izango da, baina epe horretan matrikulatutakoei EZ zaie plaza bermatzen.

Hau dela eta, matrikulazioa iraila arte ez uztea eskatzen dizuegu, horrek Musika Eskolaren funtzionamendurako oztopo asko ekartzen baititu.

EGUTEGI ETA ORDUTEGIA

Uztailak 2an, udaleko web orrian eta, Musika Eskolako atarian ohar baten bidez datorren 2018/2019ko egutegia eta hizkuntz musikaleko ordutegiak jarriko dira. Irailak 11an, beste ohar baten bidez, beste ordutegiaren berri emanen dizuegu.

Matrikula deuseztatu nahi izanez gero, lehendabiziko kurtsoko hiruhilabeteetan egin ahal izango da, abenduaren 31a arteko epearekin. Beranduago matrikula deuseztu nahi izanez gero, kurtso guztiko kuota ordaindu beharko dira.

Gure eskeintza gustokoa izango duzelakoan eta edozein galderari erantzuteko asmotan.

Agur bero bat:

Gorka Gaztanbide Lasa ZUZENDARIA.